

EUSKARA

AZAROA > ABENDUA 2020



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO



gizartea eta kultura  
garaikidea

Bilbao



# Babesturen hamar proiektuak aukeratu dira

Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz sorkuntza artistikoan izan den geldialdia saihesteko orain dela hilabete batzuk irekitako aparteko deialdian, 103 proiektu aurkeztu dira guztira. Horietatik, egile hauen lanak aukeratu dira: [Elena Aitzkoa](#), [Maider Aldasoro](#), [Borja Crespo & Raquel Meyers](#), [Irati Inoriza](#), [Miriam Isasi](#), [Sahatsa Jauregi](#), [Karlos Martinez](#), [Camila Téllez](#), [Josune Urrutia](#) eta [Iker Vázquez](#).



## Sahatsa Jauregi Azkarate Aizkora

*Aizkora* ikerketan, artistak hainbat irudi jaso ditu, Euskal Herriko historia kulturala objektu

jakin baten bidez (aizkora) ikonografikoki nola eraiki den erakusten dutenak. Album honek alderdi formalak, sinbolikoak, soziologikoak, biografikoak, filmikoak eta aizkoraren alde animistak ere hartu ditu kontuan, eta eskulturaren bidez sendotu nahi diren erreferentzien multzoa sortu du horrela.

Irudia: Arte y crítica



## Camila Téllez *Transición primaveral*

Erreferentzia gisako autobiografiatik, *Transición primaveral* ikerketaren oinarria da gorputzaren

oroimena eta identitatea berreraikitze eta subjektibotasuna eraldatzeko prozesu etengabea. Irudi banpiriko polemikoak hartzen ditu erreferentzia gisa, literaturatik gure garaiko zinemara joz, irudi horiek aldatzen eta garaikidetasuna islatzen jarraitzen baitute.



## Raquel Meyers & Borja Crespo *Elige tu propia normalidad*

*Elige tu propia normalidad* lanak premiazko gogoeta

kritiko bat du sorburu, inork deszifratzea lortzen ez duen etorkizunari egindako begirada berriei buruzkoa, alde digitalak duen eragin ulergaitzetik haratago. Bizitza sarean, sarerik gabe. Proiektuak elkarrizketarako eta kritikarako gune bat sortu nahi du garai pandemiko hauetan; aldaketarako gune bat, agian horrelakoa izango ez dena, aldaketa hutsekoa eta azaleko helburuetakoa.

Irudia: b1frm



## Josune Urrutia *Onko*

Arte- eta osasun-gaiei buruzko pentsamendu, hausnarketa eta sorkuntzarako zeharkako gunea da

*Onko*. Gaixotasun-esperientziak izandako pertsonak, osasun- eta kultura-arloko erabiltzaileak eta profesionalak, eta gai horiekiko interesa duten pertsonak biltzen ditu.



### Elena Aitzkoa

*Lendia Song*

*Lendia Song* Lendia lakuaren inguruko proiektu performatibo eta kolaboratiboa da. Kantuaren, ikus-

entzunezkoaren eta dantzaren bidez, natura eta paisaiarekiko harremana agerian jarri, eta koreografia bat eraikitzen du ikus-entzunezko kantutegi gisa.

---



### Iker Vázquez

*Az Reality Lab*

*Az Reality Lab*

proiektuaren helburua da emakumearen irudikapenari buruzko lan-espazio iragankorra

izatea. Emakume sortzaileei irekitako parte-hartze prozesu bat da, eta irudikapen berriak proposatu nahi ditu, gaur egungo kosifikazio sinbolikoaren alternatibak egituratzeko.

---



### Mainer Aldasoro

*Eterno Noeterno*

*Eterno Noeterno* beste pertsona batzuekin edo haien aurrean egindako ekintza performatiboen multzoa da, eta

desiraren gehiegikeria adierazten du haien bidez. Artistak dienez, «Desiratik egin, baina ez da nire desioa. Bakarrik jaiotzen den gorputz bat, oker jaiotzen da. Egikera dago indarra. Performatzen ez badut ez dago, partekatzen ez bada ez du zentzurik».

---




### Miriam Isasi

*Resina, brea y glicerina*

Paisaiaren identitateari lotutako ikerketa honek sendabelarren eta haien sistema

immunologikoen erabilera hartzen du abiaburutzat. Bilaketa koniferoen basoetan hasiko da, eta arrokako erretxina hartuko du hari eroale gisa proiektuaren garapenean zehar.

---



### Irati Inoriza

*Nadie se baña dos veces en el mismo río, sino en el pantano mismo*

Ikus-entzunezko istalazio gisa aurkezten

da proiektu hau, eta zenbait performance eta gure identitateei eusten dien artxibo antropologikotik abiatuta egituratzen da, gorpuztasun plastikoaren bidez, haren errealtate, zeinu eta metaforarekin.

---



### Karlos Martinez B.

*Plan K. Gut*

*Plan* arte-proiektuak aurkezteko espazio etena izan nahi du, eta ohiko erakusketa-

eta entzumen-aretoetatik kanpoko beste leku batzuetan sartu nahi du, zeharkako elkarrizketak eratzeko eragileen eta erakundeen artean eta lankidetzeta-moduak sortuko dituzten sareak osatuz.

---

**Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa berezia, sorkuntza bultzatzeko deialdia da Covid-19ak eragindako krisiak kaltetutako prozesuak eta ikerketak dituzten bertako artistei eta kultura-eragileei zuzendua.**



gizartea eta kultura garaikidea

azkunazentroa.eus

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

EUSKARA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2021



gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

# Jar zaituz harremanetan Az-rekin

azkunazentroa.eus

Artistak: [programacioncultural@azkunazentroa.eus](mailto:programacioncultural@azkunazentroa.eus)

Deialdiak: [deialdiak@azkunazentroa.eus](mailto:deialdiak@azkunazentroa.eus)

Jendearentzako arreta: [info@azkunazentroa.eus](mailto:info@azkunazentroa.eus)

944 014 014

PLAZA ARRIBAR, 4  
48010 BILBAO



ARTE BISUALAK / BABESTU / IKERTZAILE AZ-KIDEA  
**MAR. 4** (ostg.)

# Camila Téllez

## *Transición primaveral (Udaberriko trantsizioa)*

Eszter Katalin artistarekin lankidetzan sortutako proiektua  
**Proiekzioa ondoren, solasaldia Aimar Arriolarekin**

JARDUERA HAU MARKO BIKOITZEAN SARTUTA DAGO: **BABESTU, SORKUNTZA GARAIKIDEA BABESTEKO PROGRAMA BEREZIA, ETA AIMAR ARRIOLA KOMISARIOAREN FORMA DESIRA** PROIEKTUAN. PROIEKTU HORRETAN, QUEER IKUSPEGIEN ETA ARTEAREN ARTEKO ERLAZIOA IKERTZEN DA, ZENTROKO PROGRAMAZIOAREN BARRUAN.

Camila Téllez. *Transición primaveral*



Ikerketa honetako elementuak banpirismoaren inguruan garatzen dira, queer/kuir, autobiografia eta gorputzaren oroimenari dagokienez. Hamabi urte zituela hilekoa izateak haurtzaroaren pitzadura ekarri zion, eta aurre egin behar izan zion esleituta zuen gURTARRILAA onartzeari; orduan, artista gaztea zela, vampir rola jokatzeko hasi zen, gaueko izaki baten portaera hartuz.

Ikerketa honetan, [Eszter Katalin](#) artista laguntzaileak egindako elkarrizketa batzuen bidez, artistak bere haurtzaroko esperientziaren remake moduko bat proposatzen du, bere banpirismoaren kontakizun pertsonala birkonektatzeko eta birkonfiguratzeko. Elkarrizketa horietan, galderak agertzen dira berriro irudi-ezari, erreflexuari, desioari, mugari, indarkeriari eta fikzioari buruz, performatibotasunetik erantzuteko.

Aurkezpen hau marko bikoitzean gertatzen da: [Babestu, sorkuntza garaikidea babesteko programa berezian](#), eta [Aimar Arriola](#) komisarioaren *Forma desira* proiektuan. Proiektu horretan, queer ikuspegiaren eta artearen arteko erlazioa ikertzen da, Zentroko programazioaren barruan.

////////////////////////////////////

#### Martxoak 4, osteguna

18:30

Auditorioa


Sarrera dohainik, aurrez [azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus) webgunean izena emanda, leku guztiak bete arte

////////////////////////////////////

Irudia: Eszter Katalin



**CAMILA TÉLLEZ** (Santiago, Txile, 1982). Bilbon bizi da. Diziplinarako artista. Arestian egindako lan artistikoan, hainbat identitate-adierazpen ikertzen ditu, bizi izandako espazioetan, baita ikusleekiko eta publikoarekiko harreman ikusezinez ere, lekuetako bitartekaritza-proposamen desberdinetan.



**ESZTER KATALIN** (Budapest, 1991) ikus-entzunezkoen artista da. Vienen eta Bilbon bizi da. Bere praktika ikuspegi queer eta feministatik garatzen du, subjektibotasunen irudikapen soziopolitikoak auzitan jarriz eta tenkatuz. Tabakalerako artista egoiliarra izan zen (2019) eta gaur egun Bilbao Arte Fundazioko egoiliarra da (2020).